

**DURANGOKO SARE SOZIALAREN
DIAGNOSTIKO PARTE-HARTZAILEA
HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO OZTOPOAK
ETA AUKERAK
AZKEN TXOSTENA**



AURKIBIDEA

0. AURKEZPENA.....	2
1. PROIEKTUAREN HELBURUAK	3
2. METODOLOGIA	5
3. DURANGO UDALERRIA: KOKAPENA ETA EZAUGARRI OROKORRAK	13
4. DURANGOKO TOKI-SAREA	15
4.1. Udal antolaketa.....	18
4.2. Elkarte-sarea	20
4.3. Oinarri soziala	24
4.4. Ondorioak.....	26
5. DURANGOKO ELKARTE SAREAREN ETA UDALAREN ARTEKO HARREMANEN AZTERKETA	27
5.1. Durango udalerrian izandako esperientzia parte-hartzaileen garapena..	29
5.2. Durangoko Udal eta elkarte-sarearen arteko egungo harremanak.....	31
5.3. Ikuspegi ezberdinak, Udal eta elkarte-sarearen arteko harremanen inguruan.....	35
5.4. Ondorioak.....	37
6. DURANGOKO HIRRITARREN PARTE-HARTZERAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK	38
6.1. Oztopoak.....	41
6.2. Aukerak	44
7. BIBLIOGRAFIA.....	47

0. AURKEZPENA

Ikerketa lan honek **“Demokrazia Parte-hartzailerako Metodologia eta Prozesuen Dinamizatzailea”** Graduondoko Berezko Tituluaren kreditu praktikoak betetzea du helburu.

Graduondokoan, demokrazia parte-hartzailean sakontzen zuten teknika, metodo eta esperientzi ezberdin ugari ikasteko aukera izan dugu. Guztiak jaiotzen ziren filosofia beretik: demokrazia parte-hartzailearen erabilera, demokrazia ordezkatzzailearen osagarri garrantzitsua da eta horretarako gizarteari parte-hartzeko mekanismoak eskaini behar zaizkio.

Talde hau osatzen dugun laurok, filosofia honekin bat egiten dugu guztiz. Horregatik gure asmoa da ikerketa hau Durangoko gizarte sarearentzat eta Udalarentzat erabilgarria izatea prozesu parte-hartzaileak martxan jarri nahi izatekotan.

Lan hau amaitutzat jo daiteke Durangon parte-hartzeko dauden oztopo eta aukeren diagnostikoa aurkezten den neurrian. Aldiz, ildo honetatik lanean jarritzeko nahirik balego, diagnostiko hau ekimen parte-hartzaileak bultzatzeko amaitugabeko prozesuaren lehenengo pausutzat joko litzateke.

Lerro hauetatik, eta era berezian, Durangoko elkarte eta pertsona (politikari, teknikari eta herritar) ezberdinek emandako laguntza eta lankidetzeta bihotz-bihotzez eskertu nahi dugu. Beraiek, norberak bere erara eta musu truke, ikerketa-lan hau garatzen lagundu digute eta beraiek gabe ez zen lan hau zuen eskuetan egongo.

1. PROIEKTUAREN HELBURUAK

Ikerketa-lanaren helburu orokorra hau da: Durangoko errealitate sozialari eta bertan balizko prozesu parte-hartzaileak martxan jartzeko dauden aukera eta oztopoei buruzko diagnostiko parte-hartzailea burutzea.

Jakin badakigu diagnostiko parte-hartzailea burutzea berez parte-hartze soziala dela. Horrela onartzeaz gain, positibotzat jotzen dugu, **demokrazia parte-hartzailearen inguruko eztabaida maila lokalean sozializatzer laguntzen** duen neurrian. Hau ere bada egin nahi dugun ikerketa-lanaren funtsezko helburuetariko bat.

Ikerketa-lanaren helburu orokorraz gain, burutu behar dugun lana hobeto zehazten lagunduko diguten ondoko helburu espezifikoagoak planteatzen ditugu:

- Durangoko **elkarte-sarea ezagutzea**: maila ezberdinetako elkarteak (formalak eta ez hain formalak), beraien arteko harremanak eta Udalarekin dituztenak.
- Azken urteotan izandako **herritarren parte-hartzeko esperientziak**, beraien emaitzak eta egon daitezkeen balorazio ezberdinak **ezagutzea**.
- **Udalaren antolaketa ezagutzea**, bereziki ordezkari politikoen eta teknikariek parte-hartzearen inguruan dituzten jarrera eta ikuspegiari begira.
- Errealitate sozial eta parte-hartzailearen azterketa, informazioa eta ikuspegiak, **eragile ezberdinekin konpartitzea**.
- Herritarren parte-hartzeari buruz eta honek Durangon sortaraz ditzakeen erronka eta aukerei buruzko **eztabaida bultzatzea**, bai elkarteetan, bai Udalean.

Helburu espezifikoago hauen arteko batzuk prozesuaren barneko fase edo ekintza zehatzei lotuta daude. Beste batzuk, hala nola, ikerketa une oro elkarteekin eta Udaletxearekin konpartitzeko asmoa, edota parte-hartzearen inguruko eztabaida

bultzatzea, zeharlerrokoak dira eta nolabait ikerketa-lanaren beraren hasieran martxan jartzen dira. Ez dugu ahaztu behar azken hauek, seguraski ebaluatzeko zailenak direnak, direla, hain zuzen, gehien interesatzen zaizkigunak.

2. METODOLOGIA

Honelako ikerketa-lanak metodologi planteamendua behar du, eta beraz, gizarte-ikerketa egiteko era ezberdinak zuzentzen dituzten paradigma eta oinarri teorikoei buruzko hausnarketa-lana du ezinbesteko.

Gizarte-zientzietan dauden hiru tradizio nagusien artean, eta bereziki maila praktikoan proiektu honetan izan ditzaketen ondorioak kontuan hartuz, gure taldeak **tradizio edo ikuspegi kritikoa** hautatu du, bere oinarri garrantzitsuenetariko batzuk direla eta. Hala nola, zientzia ez dela neutroa kontsideratzea, gizarte-errealitatea eraldatzeko baliogarria dela eta ez dela politiko, ekonomiko edota intelektualki ondo kokatuta dauden taldeen pribilegioa.

Ondoko taulan, ikuspegi kritikoaren **metodologia** eta **teknikak** laburbiltzen dira era eskematikoan eta beste ikuspegienekin alderatuz:

	Ikuspegi Positibista	Ikuspegi Interpretatzailea	Ikuspegi Kritikoa
EPISTEMOLOGIA	Positibismoa	Hermeneutika	Dialektika
METODOLOGIA	Koantitatiboa	Koalitativoa	Parte-hartzailea
TEKNIKAK	Inkesta Kasuen erregistroa	Elkarrizketa pertsonala Eztabaida-taldeak Bizitzaren historiak	Ikerketa-ekintza

Iturria: "Gizarte-Zientzien Metodologiak" Zesar Martinez¹.

Sailkapen honen arabera, erabilitako **metodologia** parte-hartzailea baino gehiago **koalitativoa** izan da, nahiz eta metodologia parte-hartzailearen zenbait elementu sartu. Ez dugu IEP (Ikerketa-Ekintza Parte-hartzailea) eskema osoa erabili, baizik eta ikerketaren helburu nagusiak betetzen lagundu diguten zenbait elementu bakarrik.

¹ Zesar Martinez: *Gizarte-Zientzien Metodologiak*. (Argitaratu gabe)

Ikerketa parte-hartzailearen zenbait elementu eta teknika erabili nahi izan ditugu, herritarren parte-hartzerako oztopo eta aukeren azterketa xedetzat duen hau bezalako ikerketari begira, garrantzi handia dutela uste baitugu. Ioé Kolektiboak² ondoko bost puntuetan laburbildu ditu bere oinarritzko lerroak:

1. Subjektu/objektu (kudeatzaileak/bezeroak) harremanetik subjektu/subjektu harremanera pasatzea.
2. Afektaturikoen eskaera eta beharretatik abiatzea.
3. Hausnarketa eta ekintza, edota teoria eta praxia, uztartzea.
4. Gizarte-errealitatea, aldi berean zehatza eta konplexua den osotasuntzat hartzea.
5. Ikerketa-Ekintza Parte-hartzailea prozesua, mobilizazio eta emantzipaziorako bide moduan planteatzea.

Printzipio edo oinarritzko lerro hauei eutsiz, azken urteotan, Ikerketa-Ekintza Parte-hartzaileak metodologi eskema osoa eta koherentea garatu egin du. Joel Martík³ ondoko taulan aurkezten ditu eskema horren etapa ezberdinek (diagnostiko-lan hau lehenengo etapara mugatuta dago) barneratzen dituzten elementu eta faseak:

<p><i>Aurre-ikerketaren etapa: Sintomak, eskaera eta proiektuaren lanketa</i></p> <ol style="list-style-type: none">1. Sintoma batzuk detektatzea eta interbentziarako eskaera egitea (erakunde baten aldetik, normalean, Udal Administrazioaren aldetik).2. Ikerketaren planteamendua (eskaera negoziatzea eta mugatzea, proiektuaren lanketa).
<p><i>Lehenengo etapa: Diagnostikoa</i></p> <p>Eremua ezagutzea eta, dagoen dokumentazioen eta elkarte- eta erakunde-ordezkariei egindako elkarrizketen bidez, arazoetara hurbiltzea.</p> <ol style="list-style-type: none">3. Informazio-bilketa.4. Jarraipen-Batzordearen eraketa.5. IEP taldearen eraketa.6. Azterketarako elementuak sartzeta.

² Ioé kolektiboa: Carlos Pereda, Miguel Angel de Prada eta Walter Actis: *Investigación Acción Participativa: Propuesta para un ejercicio de ciudadanía*. www.nodo50.org/ioe. 2003ko ekaina.

³ MARTÍ, J. (2000): "La investigación-Acción-Participativa. Estructura y fases", ondoko liburuan: VILLASANTE, T. R.; MONTAÑÉS, M.; MARTÍ, J.. *La investigación social participativa. 1 Lib. Construyendo ciudadanía*. Barcelona: El Viejo Topo.

<p>7. Landa-lanaren hasiera (elkarte- eta erakunde-ordezkariei egindako banakako elkarrizketak)</p> <p>8. Txostena ematea eta eztabaidatzea.</p>
<p><i>Bigarren etapa. Programazioa</i></p> <p>Dauden ezagupen eta ikuspegi ezberdinetara zabaltze-prozesua, metodo koalitatibo eta parte-hartzaileen bidez.</p> <p>9. Landa-lana (gizarte-oinarriari egindako talde-elkarrizketak)</p> <p>10. Testu eta hitzaldien azterketa.</p> <p>11. Bigarren txostena ematea eta eztabaidatzea.</p> <p>12. Tailerrak burutzea.</p>
<p><i>Hirugarren etapa. Ondorioak eta proposamenak.</i></p> <p>13. Ekintza Integraleko Programa (EIP) eratzea.</p> <p>14. Behin betiko txostena egin eta zabaldu.</p>
<p><i>Ikerketa ondoko etapa: EIP martxan jartzea eta ebaluatzea. Sintoma berriak.</i></p>

Iturria: T.Alberich-ek landutako taulan oinarrituta, “Ejemplos y fases técnicas de la IAP” (argitaratu gabe)

Aipatu gorputz teoriko osotik hartu dugun elementurik garrantzitsuena, ikerketaren talde dinamizatzailean **Udalaren** kide bat (Aitziber-Alkateordea) eta **elkarte munduko** beste bi kide (Jon-Alde Zaharra eta Rebeca-Bateginez) **sartzea** izan da. Era honetan, ikerketaren partaideak emaitzen azken txostenaren jabe izan ordez, prozesu osoaren jabe izango dira, zeina bai planteamendu eta hautaketa teoriko bai ikerketa sozialaren metodologia eta praktiken bilketa moduan ulertzen dugun.

“Ikerketa Talde” eta “Jarraipen Batzordearen” arteko hibridoa izan den “**Talde Dinamizatzailea**” deitu dugun horretan pertsona horiek sartzeak, astero biltzera behartu gaitu, erabilitako teknika ezberdinen bidez lortutako informazioa aztertu ahal izateko.

Horretaz gain, eta erabilitako teknika zehatzen azalpen gisa, kopuruetan baino, harremanetan jarri dugula interesik handiena aitortu behar dugu. Balizko prozesu parte-hartzailearen lehenengo zatian kokatuta gaudela aintzat izan dugu. Fase honetan, funtsezkoena prozesu parte-hartzaileak lagun ditzaketen elkarte, talde eta udalaren arteko topagune eta elkarlanerako aukerak aurkitzean datza.

Ildo horretatik, erabili ditugun teknikak, bere kokapen estrategikoagatik hautaturiko zenbait eragileri (Herria, CVX, Andaluziako Zentroa, Alpino Tabira, Barbaro) egindako **sakoneko elkarrizketak** izan dira. Lehenengo fasean, elkarrizketa horiek lagundu digute hasierako **intuizio-soziograma** egiteko. Soziograma hau ez da aldaezina izan, baizik eta une eta gune ezberdinetan (talde dinamizatzailean, eztabaida taldeetan eta batzar irekietan) aurkeztua eta osatua izan da.

Gizarte-ikerkuntza bideratzeko era den **sareen azterketan**, harreman-aldea nabarmentzen da klasikoagoak diren beste alde batzuen (gizarte-kokapena,...) aurrean. Nahiz eta gure asmoa ildo horren arabera azterketa sakona egitea ez izan, soziograma tokiko sarera hurbiltzeko oso tresna baliagarria izan dela aitortzen dugu, bereziki gehien murgildu garen elkarte-maila horretan.

Beste elkarte eta alderdi politiko batzuei (Herri Maite, Kardantxillo, Kriskitin, Txoritxu Alai, Alpino Tabira, Inurri Skaut Taldea, PSE-EE, EA, Aralar, Mugarra Bilgunea, C.D. Karate Wado-kan nin jutsu, Bateginez, Tronperri, Etxerat, Barbaro, Alde Zaharra, Artisten Elkarte, APPEDUR, +DENDAK, AEK) **galdetegi** bat erantzutea eskatu diegu, beraiei buruzko informazioa eskuratzeko. Helburua ez da izan emaitzak sistematikoki zenbakizko eran laburbiltzea, baizik eta beste teknika koalitatiboen bidez lortutakoa osatzea.

Ikerketaren bigarren fasean, sakoneko elkarrizketa gehiago egin ditugu (Kultur Kontseilukideak izan ziren elkarte batzuk –Txoritxu Alai eta Herri Maite–, Kriskitin, Alde Zaharra, AHT, MOC, JAED, San Agustineko teknikaria, Hiritarren Harremanetarako zinegotzia, EAJ-PNV, EA, IU-EB, Aralar, MB). Aipatu beharra dugu, agenda-arazoak direla eta, ezinezkoa izan zaigula PP eta PSE-EEko ordezkariak elkarrizketatzea, eta, beste arrazoiak direla kausa, ezta ere antiinstituzionalagoak diren beste talde edo mugimenduak (Gaztetxe). Kirol eta Gazte Elkarteetan ere ezin izan dugu asko sakondu.

Sakontzeko baliagarria den teknika **eztabaida taldea** dugu. Hiru eztabaida talde dinamizatu ditugu, eragile ezberdinen arteko interakzioa laguntzeko oso baliagarriak

izan direnak. Garrantzitsua den interakzio hori, ez da gure helburu nagusia izan, diagnostikoaren fase honetan ez baitzen komenigarria guk geuk interakzio horiek bultzatzea. Eztabaida taldeek, bereziki, elkarteen arteko harremanak argitzeko eta eragile ezberdinek parte-hartzearen inguruan dituzten jarrerak eta ikuspegiak ezagutzeko balio izan dute. Elkarteen ordezkariak osatutako eztabaida taldea hasieratik definituta geneukan. Beste biak (bat, antolatu gabeko durangarrek osatua, eta bestea, elkarteen ordezkariak eta teknikariak osatua), sakoneko elkarrizketen emaitzetan oinarrituta zehaztu genituen.

Prestatzen ari ginen lana Durangon ahalik eta publikoena izatea izan da gure asmoa. Horrexegatik, hiru une ezberdinetan (prozesuaren hasieran, erdi aldean eta amaieran) elkarte, talde eta udalari **zabalik egon diren bilerak** antolatu ditugu. Bertan, gure asmoak azaltzeaz gain, prozesuan zehar sortutakoa elkarbanatu dugu guztion artean.

Lehenengo bileran, graduondokoaren taldea eta egin nahi genuen diagnostikoa aurkeztu eta talde dinamizatzailean parte-hartzeko gonbidapena luzatu genuen. Halaber, elkarteei buruzko informazio orokorra lortzeko balio izan zitzaigun.

Bigarrenean, talde dinamizatzaileak prestaturiko soziogramaren zirriborroa aztertu genuen bi talde ezberdinetan: alde batetik, elkarte eta eragile sozialak; bestetik, ordezkari politikoak.

Hirugarrenean, eta atal honetan deskribaturiko teknika guztiak erabili ondoren, **behin-behineko txostena** aurkeztu genuen, nahi izan zuten eragile guztiekin eztabaidatzeko. Horretarako, behin-behineko txostenaren bidalketa egin ondoren, bilera zabal bat konbokatu eta bertan prozesu parte-hartzaileak Durangon martxan jartzeko dauden oztopo eta aukerak denon artean aztertu genituen.

Bileran egindako ekarpenak txosten honetan sartuta daude eta **behin betiko txosten** honekin amaitutzat ematen dugu diagnostiko parte-hartzailea. Prozesuan parte hartu duten eragile guztiei helaraziko diegu eta, ahal den heinean, Durangoko biztanleak.

IKERKETAREN KRONOGRAMA (1. orr.)

ID	Jarduera	Ekintza espezifikoak	Hasiera	Amaiera	Iraupena	Mar 2004			Abr 2004			Mayo 2004			Jun 2004			Jul 2004			Ago 2004			Sep 2004					
						7/3	14/3	21/3	28/3	4/4	11/4	18/4	25/4	2/5	9/5	16/5	23/5	30/5	6/6	13/6	20/6	27/6	4/7	11/7	18/7	25/7	1/8	8/8	15/8
1	Ikerketa proiektua egitea.	Eskaera zehaztea. Helburuak, metodologia,... definitzea.	04/03/04	06/04/04	24d	[Barra zeharkatuak Mar 2004 eta Abr 2004 artean]																							
2	Udalerriari buruzko informazio orokorra biltzea.	Ezaugarriak, biztanleria,... Dokumentuen irakurketa: "Hausnarketa estrategikoa", aktak,... Foileto eta tokiko komunikabideen aleak biltzea.	22/03/04	16/04/04	20d	[Barra zeharkatuak Mar 2004 eta Abr 2004 artean]																							
3	Udal eraketa ezagutzea eta aztertzea.	Osaketa, barne-egitura, giza-baliabideak, parte-hartzerako bideak edota tresnak,...	22/03/04	16/04/04	20d	[Barra zeharkatuak Mar 2004 eta Abr 2004 artean]																							
4	Elkarte, talde, gizarte-mugimendu eta abarren datu-base eguneratua egitea.	Elkarte, talde, gizarte-mugimendu eta abarrei buruzko informazioa biltzea. Informazioa kontrastatzea eta eguneratzea.	22/03/04	16/04/04	20d	[Barra zeharkatuak Mar 2004 eta Abr 2004 artean]																							
5	Ikerketan erabiliiko diren tresnak diseinatzea eta garatzea.	Antolaturiko taldeak (elkarteak, mugimenduak, etab.), Partidu politikoak eta Teknikariak elkarrizketatzeko gidioak prestatzea.	26/03/04	08/04/04	10d	[Barra zeharkatuak Mar 2004 eta Abr 2004 artean]																							
6	Elkarte eta eragile sozialei egindako lehenengo elkarrizketak burutzea.	Zitak zehaztea. Elkarrizketak egitea eta transkribatzea.	05/04/04	20/04/04	12d	[Barra zeharkatuak Apr 2004 eta May 2004 artean]																							
7	Ikerketa eta Praktika-Taldearen aurkezpena.	Gizarte-eragileekin bilera. Triptiko argigarria egitea. Elkarrizketa eta artikulua, tokiko komunikabideetan.	20/04/04	26/04/04	5d	[Barra zeharkatuak Apr 2004 eta May 2004 artean]																							
8	Ikerketaren "Talde Dinamizatzailea"-ren sorrera eta funtzionamendua.	Herriko gizarte-eragileak, Ikerketaren Talde Dinamizatzailean sartzea. Taldearen bilerak, astero. Ikerketaren lerro nagusiak zehaztea. Kontrastaketa, jarraipena eta lan-banaketa.	22/04/04	25/06/04	47d	[Barra zeharkatuak Apr 2004 eta Jun 2004 artean]																							
9	Elkarrizketa berriak egitea, elkarteei, partidu politikoei eta udal-teknikariei.	Zitak zehaztea. Elkarrizketak egitea eta transkribatzea.	27/04/04	15/06/04	36d	[Barra zeharkatuak Apr 2004 eta Jun 2004 artean]																							
10	Soziogramaren lehenengo zirriborroa egitea.	Elkarte-sare eta Udalaren arteko harremanei dagokienez, galdetegi, elkarrizketa eta abarren bidez jasotako informazioa bildu, aztertu eta sintetizatu.	03/05/04	12/05/04	8d	[Barra zeharkatuak May 2004 eta Jun 2004 artean]																							

Partehartzaileen Laburpen-Taula

<p><u>Elkarrizketaturiko Gizarte-Eragileak</u></p> <p><i>Ondoko elkarteek kideak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Herria • CVX • Andaluziako Zentroa • Alpino Tabira • Berbaro • Azken Kultur Kontseilua (Txoritxu Alai eta Herri Maite) • San Agustin Kultur Zentroaren Teknikaria • Hiritarren Harremanetarako Zinegotzia • Alde Zaharra • Txosnen Batzordea • Kriskitin • AHT • MOC • JAED • EAJ-PNV • EA • MB • Aralar • EB 	<p><u>Galdetegia bete duten Gizarte-Eragileak</u></p> <p><i>Ondoko elkarteek kideak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Herri Maite • Kardantxillo • Kriskitin • Txoritxu Alai • Alpino Tabira • Inurri Skaut Taldea • C.D. Karate • Bateginez • Txistulariak • Tronperri • Palentziako Zentroa • Etxerat • Alde Zaharra • Berbaro • Artisten Elkartea • APPEDUR • +Dendak • AEK • EA • MB • Aralar • PSE-EE
<p><u>Eztabaida-Taldeetan parte hartu duten Gizarte-Eragileak</u></p> <p><i>Ondoko elkarteek kideak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Herria • Berbaro • Txoritxu Alai • Herri Maite • Kriskitin • Alde Zaharra • Bateginez • Tronperri • Etxerat • Gurasoak • Guezan Ba! • Durango Rugby Taldea • Euskara Teknikaria • Gazteria Teknikaria • Euskal Asteko Teknikaria • Antolatu gabeko pertsonak 	<p><u>Egindako bileraren batean parte hartu duten Gizarte-Eragileak</u></p> <p><i>Ondoko elkarteek kideak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Herria • Palentziako Zentroa • Berbaro • Txoritxu Alai • Herri Maite • Kriskitin • Alde Zaharra • Kardantxillo • C.D. Karate • Bateginez • Txistulariak • Tronperri • Artisten Elkartea • APPEDUR • +Dendak • EAJ-PNV • EA • MB • Aralar • EB • PSE-EE • Antolatu gabeko pertsonak
<p><u>Ikerketaren Talde Dinamizatzailearen kideak:</u></p> <p><i>Gizarte-Eragileak:</i> Aitziber (Alkateordea), Jon (Alde Zaharra) eta Rebeca (Bateginez)</p> <p><i>Praktika-Taldearen kideak:</i> Aitziber Oliban, Arantza Urkaregi, Imanol Telleria eta Miguel A. Gómez.</p>	
<p><u>Tutoretza eta Ikuskapena:</u> Mario Zubiaga eta Parte Hartuz (EHU-UPV)</p>	



3. DURANGO UDALERRIA: KOKAPENA ETA EZAUGARRI OROKORRAK



Durango, Bizkaiko erdialdean kokatuta dagoen herria da, 10,79 km²-ko azalera duena. Ibaizabal ibaiaren ezkerreko bazterrean zabalgunea okupatzen du eta hegoalderantz Udala, Anboto eta Alluitz mendiak uzten ditu.

Durango, bere inguruan instalatu diren industri ugarien babespean, etenik gabeko demografiako hazkundera izan du 1940tik hasita. Joera honek geldialdi bat jasan du 80 hamarkadaren amaieran ekonomi krisiaren ondorioz.


Gehikuntza hau, neurri handi batean, Durangaldeko landalur inguru eta Bizkaiko inguruko eskualde eta, batez ere, beste herrialdeetatik etorritakoen ondorioa izan da, hauxe delarik Durangoko adineko piramidearen gaztetasuna azaltzen duen arrazoia.




Durango, 2001eko erroldaren arabera, 25.003 bizilagun ditu, hauetatik 12.201 (%49) gizonezkoak eta 12.802 (%51) emakumezkoak direlarik.



Biztanleen %44.25a euskalduna da, eskualdeko batez bestekotik behera. Hala ere, etorkizunari begira, kontuan hartu behar da D eredu nabarmen nagusia dela hezkuntza ez-unibertsitarioan, ondoko grafikoa ikusten denez:



Ikasketa-prestakuntza handia dute eta langabezi tasa txikia da (%5,28), baina langabetuen arteko %65a emakumezkoak dira.



Iturria: Eustat 2001/2002

Durango, zerbitzuetako herri ertaina da, autonomi elkartearen geografian kokapen estrategikoa duena. Batez ere burdinola eta lanabesgintzan diharduen industriako sektore garrantzizkoa du. Ibaizabal ibaiko ertain eta goi harana okupatzen duen eskualde baten burua izanik, merkatalgune,

zerbitzu publiko, garraio, banku eta aseguruaren alorretako zerbitzu sektorea oso garatua du.

Kultur ospakizun esanguratsuak burutzen dira, bereziki Euskal Liburu eta Disko Azoka eta kulturari zuzendutako lokal ezberdinak daude, hala nola, Pinondo Etxea, San Agustin Kultur Gunea, Landako, Arte eta Historiaren Museoa edota Ezkurdiko erakusketa-aretoa.

4. DURANGOKO TOKI-SAREA

Beraien artean erlazionatuta dauden eremu sozial bateko eragile-multzoari tokiko sarea deitzen diogu. Tokiko sareetan, eragile-maila ezberdinak bereiz ditzakegu: Administrazioa (maila politiko-insituzional eta maila tekniko eta zerbitzuetakoarekin) eta herritarrak (non maila formalizatuagokoak –elkartek, entitateak–, informalgoak –kidesun-taldeak, presio-taldeak– eta oinarri sozial ez antolatua bereiz ditzakegun). Joel Martíren⁴ arabera, tokiko sareak ondoko ezaugarriak dituzten harreman-sistemak dira:

- *Sistema dinamikoak* dira: Gizarte egitura guztiek beren kideen arteko menpekotasun-eta desberdintza-harremanetan oinarritzeko joera dute. Egitura-mota hau, nahiz eta nahiko egonkorra izan –botere handieneko taldeen interesa, dauden harremanen gidalerroei eustea baita–, gatazka-iturri iraunkorra bada ere, eta horrekin batera, etengabeko aldaketarako iturria.
- *Sistema irekiak* dira: Gizarte-sare guztiak zabalagoak diren sistemen barruan kokatuta daude. Ez da bakarrik mikro-makro harremana (tokiko sare guztiek, lotura globalak dituzte) baizik eta, bereziki, partaidetza ugari (gizarte-talde batena baino, talde-multzo batena) dituzten lagunez osoturiko tokiko sare anitzen arteko elkar-erlazioa.
- *Sistema konplexuak* dira: Gizarte-sareak, elkar eragiten dituzten eta aurreikusi ezin diren harreman-mota berriak sortarazten dituzten nodo anitzez (pertsona, talde, elkarte eta erakundez) osoturik daude.

Tokiko sarea deskribatzeko tresna onenetariko bat soziograma dugu. Grafo (irudi/mapa) batean datza, non eremuko aktoreak adierazten dituzten nodo ezberdinak eta beraien artean dauden harremanak irudikatzen diren. Soziogramak eginkizun ezberdinak bete ditzake⁵:

⁴ MARTÍ, J. (2004): *La realidad que se percibe, se mide y se transforma: Métodos y técnicas para la participación social*. “Demokrazia Parte-hartzaileako Metodologia eta Prozesuen Dinamizatzailea” Graduondoko Berezko Tituluaren materialak. UPV/EHU. <http://www.partehartuz.org/prin.htm>

⁵ MARTÍ, J. (2004): *Diagnósticos locales participativos: estrategias, métodos y técnicas*. “Demokrazia Parte-hartzaileako Metodologia eta Prozesuen Dinamizatzailea” Graduondoko Berezko Tituluaren materialak. UPV/EHU. <http://www.partehartuz.org/prin.htm>


- Komunitate bateko inguruak *identifikatzeak eta kokatzeak*, berez, balio deskribatzailea dute, dauden baliabideak laburki erakutsi eta gai zehatz batekiko lotura-maila edo kokapenaren arabera biltzen baititu. Beraz, komunitateko gizarte-harremanen “argazkia” da, non “nor dago” prozesuan, “nor ez dago”, “nor egon liteke” eta “nork galerazten digu gehiago izatea” agertzen diren: inguru zehatz batetik izandako pertzeptzio partzialez gain, globalizatzen eta kolektiboki hausnartzen laguntzen digu.
- *Laginketa eta adierazgarritasuneko oinarri-tresna*. Prozesu parte-hartzaileetan (eta, bereziki, diagnostikoetan) bilatzen dugun adierazgarritasuna koalitatiboa da: diskurtso-eremu osoa hartu behar da, komunitatean dauden talde sozial eta iritzien aniztasunera ailegatu dela bermaturik. Soziograma, laginketarako, eta beraz, adierazgarritasuna bermatzeko, oso tresna eraginkorra da.
- Soziograma *talde-estrategiak zehazteko tresna* ere izan daiteke. Azken finean, nortzuk garen (geu, antolatuta gaudenok), gureak nortzuk diren (oinarri soziala), nortzuekin konta eta kolabora dezakegun (hurbileko pertsona eta taldeak), nortzuk konbentzitu behar ditugun (pertsona eta talde epelak) eta nortzuk isolatu behar ditugun (pertsona eta talde etsaiak) definitzen laguntzen digu.

Eta, aurreko puntuaren ondorioz, azterlan honek *dinamika eraldatzaileak sortarazteko* zeintzuk diren *bultzatu beharreko harremanak* identifikatzen laguntzen du: harreman horietan inplikaturiko eragileen arteko elkarguneak bilatuz, elkar-konplizitate eta konfidantzak bultzatuz, autodiagnostiko eta proiektu partekatuak garatzeko elkarriketa-eremuak zabalduz eta eragiteko estrategiak zehaztuz.

Aipatu elementu guztiak kontuan hartuz, Durangoko tokiko sarea deskribatzeko asmoz, ondoren aurkezten dugun soziograma prestatu dugu.

DURANGOKO TOKI-SAREAREN SOZIOGRAMA

- Jarduera-Arloak:**
- 1. Kirola
 - 2. Auzokoak
 - 3. Kultura
 - 4. Euskara
 - 5. Gazteria
 - 6. Gizarte Ekintza
 - 7. Gizarte Mugimenduak.



Soziograman agertzen diren eragile ezberdinak deskribatuko ditugu, beraien ezaugarri nagusiak nabarmenduz.

4.1. Udal antolaketa

Udal antolaketa eta funtzionamendua aztertu baino lehen, Udala ez dela lehen aipaturiko “Administrazioa” izendapen orokorraren barruan dagoen erakunde bakarra azpimarratu behar dugu, termino horren barruan beste eragileekiko harremanak izan ditzaketan udalez gaindiko erakundeak baitaude.

4.1.1. Maila politiko instituzionala

Durangoko Udalak, udalerriaren tamainuaren arabera, 21 zinegotzi ditu. Egun, EAJ-PNV/EA koalizioak 10 zinegotzi, Alkatea barne, ditu; PP-ek 4 zinegotzi, Mugarra Bilguneak 3 zinegotzi, PSE-EEK 2 zinegotzi eta Aralarrek eta EB-k zinegotzi bana. Udal Gobernuak EAJ-PNV/EA koalizioaren eskuetan dago.

Ardura-arloak, neurri handi batean, bat datoz Batzorde Informatibo eta Bereziekin, nahiz eta Batzordeetan sartuta ez dauden zenbait arlo garrantzitsuetako zinegotzi delegatuak egon, hala nola, Herritarren Harremanetarako ardura duen zinegotzia. Denetara, bost Batzorde daude Durangoko Udalean: Kontu Batzorde Berezia, Hirigintza Batzordea, Obrak eta Ingurugiro Batzordea, Gazteria eta Kirol Batzordea, Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordea eta Gizarte-Ekintza Batzordea.

Udalbatzan dagoen aniztasuna azpimarratu behar dugu. Zinegotziak dituzten 7 alderdi politiko daude, hau da, ea aukera posible guztiak⁶. Egoera honek, eta gehiengo absolutuen ezak, alderdien oinarriek beren aldarrikapenak barnetik bideratzeaz gain, gaien arabera talde ezberdinen arteko akordio puntualak ahalbideratzen ditu.

⁶ Behin-behineko txostena eztabaidatzeko bileran, Batasuna ez dagoela azaldu zen.

Zinegotzien artean dagoen lan-giroa ona da, gaiak eztabaidatzera eramatean ez dira oztopo handirik agertzen, baina informazio-trukaketaren inguruan iritzi ezberdinak daude. Beste aldetik, talde batzuek lan-eremu fisikoak partekatzen dituztenez, lotura estuagoak sortzen dira.

Orain arte, lanean hasi arren, ez da egon elkarte eta oinarri sozialak Udalean parte-hartzeko eta Udalarekiko harremanak bideratzeko araudirik. Azken aldaketa legalek parte-hartzerako tokiko araudiak bultzatzen dituztenez, seguraski laster egongo da indarrean.

Elkarteek, Batzorde Informatiboetan mozio bat aurkezteko edo gai bat azaltzeko aukera dute, aurretik Batzordearen Lehendakariari eskatuta eta berak onarturik. Baina udalbatzan mozio bat aurkezteko, alkateak edo gutxienez hiru talde politikok babestu behar dute. Udalbatzan hitz egiteko, galde-erreguen ostean, udalbatza amaitu eta gero izan behar da eta alkatearen baimenaz. Orain arte, legegintzaldi honetan, gizarte-taldeek aurkezturiko mozioak Udalbatzan eztabaidatu dira.

Aurten, apirilko Udalbatzan, Dirulaguntza-Ordenantza Orokorra onartu da, zeinak Udalaren edozein arlok dirulaguntza emateko irizpideak eta baldintzak finkatzen dituen. Geroago, arloko Ordenantzak garatu beharko dira.

Aipatu behar dugu ere kirol eta kultura arloko zenbait elkartek Udalarekin duten harreman-formula berezia: Kolaborazio Hitzarmenak, hain zuzen. Hitzarmen horiek, diru-kopuru baten truke, zerbitzua emateko konpromisoa, bai elkartearen eta bai erakundearen aldetik, jasotzen dute. Formula hau nahiko zabalduta dago eta zenbait talderen egonkortasuna bultzatzen du.

Ordezkarri politikoen, parte-hartzea eta bera bultzatzeko bideen inguruan duten pertzepzioa ez da guztiz homoginoa. Herritarren eta Udalaren arteko komunikazio-bideak murrizak eta kaskarrak izateaz jabetzen dira, baina hauxe da errealitateari buruz duten ikuspegia: gaur egun parte-hartzearen aldeko kultura oso txikia da. Beste batzuek, taldeak bilduko zituen eta Udalarekiko interlokutorea izango litzatekeen plataforma bat

faltan botatzen dute. Badago ere parte-hartzerako egiturak sortzean, iraganean izandako akatsak errepika ez daitezen, kontuz ibili behar dela pentsatzen duena. Orokorrean, abian jarriko den Tokiko Agenda 21 prozesuak sortarazi dituen espektatibekin bat egiten dute, prozesu osoa foro hiritar batean oinarritzen baita.

4.1.2. Maila teknikoa eta zerbitzuena

Maila hau da, Administrazio barruan, herritar eta elkartekiko lehenengo kontaktua errazten duena, berarekin izango da harreman iraunkorra. Tarteko egitura da.

Maila honen azterketan, arlo garrantzitsuetan dagoen teknikarien falta nabarmentzen da. Maila politikoa gabezi honetaz jabetu da eta teknikari gehiago izateko erabakia hartu du, hala nola, Kultur Teknikari edo Tokiko Agenda 21en plazak. Orain arte, harremanak, kulturaren adibidez, administrariekin izaten ziren. Teknikaria duten arloek, garai honetan behintzat, beste eragileekiko harreman handiagoa izan dutela egiaztatu da, hala nola, euskara edo gazteriaren kasua.

4.2. Elkarte-sarea

4.2.1. Durangoko elkarte-sarearen ezaugarri orokorrak

Ondoko lerroetan, Durangoko elkarte-sarearen ezaugarri orokorrak azalduko ditugu:

- Eragileek elkar-harreman txikia nabarmentzen dute. Elkarteek eta herritarrek Udalarekiko urruntasun handia somatzen dute. Elkarteak gero eta parte-hartze txikiagoa egoteaz kezu agertzen dira: “*Belaunaldi aldaketa da elkarte guztien arazorik handiena*”. Egoera honen zergaitia bereziki ondoko prozesu globaletan datza:
 - Militante kontzeptuaren galera garaia iritsi da, aurreko garaietako funtzionamendu egituren aldaketa gertatzen ari da. Aintzat izan behar da baita, gizarte mugimenduetan baino, gizarte taldeetaz ari garela.

- Interes pertsonala interes sozialaren gainetik jartzen dugu gizartekideok orokorrean.
 - Taldeekin engaiatzeko gogo falta. Ekintza puntualetan parte-hartzeko prest daude, baina epe luzerako konpromisoak aurreko garaietako parte-hartze moduak gogorarazten die. Lehen, taldea uzteak giro txarra sortzen zuen taldekideen artean, eta egun gertatzen ez den arren (konpromiso maila orokorra txikiagoa delako), aurreko garaietan militanteak izandakoak taldeetan parte-hartzea galgatzen ditu.
 - Egoera honen aurrean talde batzuek euren egitura eta helburuak aldatzen joan dira gutxinaka herritarren interesetatik hurbilago egoteko nahiri erantzunez. Izaera erreibindikatioa, neurri handi batean, kultural bihurtu da.
- Elkarte asko eta orientabide ezberdinetakoak. Elkarte-sarea, ikuspegi deskribatzailetik, oso anitza da, oso xede ezberdinetako elkarteak baitaude, hala nola, kirolekoak, musikakoak, aisialdikoak, gurasoen elkarteak, gizarte-mugimenduak,...
 - Gizarte taldeak modu informalean erlazionatzen dira batez ere. *“Elkarteen arteko harremana ona da, zeozer behar badute eskatzen dute eta ematen zaie”* dio elkarrizketatu batek eta beste batek adierazten du koordinazioa ez dagoela, jendea ezagutzen dela *“eta modu horretakoak direla harreman nagusiak”*. Hala ere harreman formalari erantzuten dioten ekimenak egon dira eta daude, hala nola, “Kulturaldia”, Gerraren Kontrako Plataforma, Durangoko Kafe Antzokia,... Iraganeko koadrilak edo lagun taldeak eta txokoak (eta beharbada, gazteen lokalak ere) elementu bateratzeile moduan funtzionatzen dira. Gune hauetan elkar ezagutzen dira gerora ekimen bateratuak sortuko dituztenak. Hezkuntza zentruak eta kirol taldeek gurasoek Durangoko bizitza sozialean sartzeko balio dute, sarearen partaidea sentitzeko lehenengo urratsa dena. Elkarteen arteko ekintza edo ekimen bateratuak sortzeko oztopoak izan daitezke bakoitzari esleitzen zaizkion etiketak. Etiketa hauek aurreiritzi moduan jokatzen dute eta talde batzuen eta besteen arteko elkarlanaren posibilitateak murrizten dituzte. Askotan etiketa hauek ez dira taldeko kideen

izaerarekin bat etortzen, baina euren funtzio banatzailea betetzen dute. Honen harira, esan beharra dago Durangoko talderik handienak politikatik at geratzea erabaki dutela, horrela, beraien ustez, jende gehiago taldean inplikatzeko eta elkartearen arteko harremanak errazteko lortzen dutelarik.

- Elkartearen diru-sarrerei begira, autofinantziazio-maila handia lortzen dutenak eta beren programazioa aurrera eramateko Udalaren dirulaguntza edo Hitzarmenaren menpe daudenak bereiztu behar ditugu. Lehenengok, bigarrenetik indar-posizioa lortuko dute, beren jarduerak ez baitago erabaki publikoaren menpe.
- Elkarteak nahiko sektorializatuak daude, eta beren jarduerak ia soilik beren eremuan barne garatzen dutenez, zaila da jarduerak-ikuspegi globala izatea.

4.2.2. Durangoko elkarte-sarearen barneko harremanak

Durangoko elkarte-sarea zazpi esparrutan bana daiteke soziograman adierazten den moduan: Kirola – Auzo Elkarteak – Kultura – Euskara – Gazteria – Gizarte Ekintza – Gizarte Mugimenduak.

4.2.2.1. Arloz arlo

Alde batetik kirol taldeak dauzkagu, Cultural, Tabirako, Karate, Alpino Tabira, Rugby,... bazkide kopuru handia eta mugimendu nabarmena dutenak. Talde hauek euren artean harreman txikia dute, askotan elkarren lehian ibiltzen dira udaletik datozkien dirulaguntzengatik eta azpiegiturak lortzeagatik. Esparru honetan beraz elkarrekin jarduteko ohitura gutxi dago, talde bakoitzak bere helburu zehatzak ditu, ondoko taldearekin bateragarriak jotzen ez direnak.

Bestetik, auzo elkarteak dauzkagu: Herria eta Alde Zaharra. Garapen oso ezberdinekoak, bietan zaharrenak (Herria) kultur esparrura ere zabaldu du bere jarduerak. Alde Zaharrak (askoz berriagoa) lotura berezia dauka “+Dendak” Dendarien

elkartearekin, batez ere kokapen kontua dela eta, biak arduratzen baitira Durangoko Alde Zaharraren bizimoduaz. Auzo elkarten arteko harremana ez da oso handia, Alde Zaharraren sorrera garaian kontaktuak egon ziren arren. Egun, batak bestearekiko interesa adierazten dute.

Harreman sarerik konplexuena kultur taldeen artean dago. Bertan barneratzen dira musika taldeak (Orfeioa, Bogoroditsie, Doinu Zahar, Herri Maite, Txistulariak,...) alde batetik, dantza taldeak bestetik, haratago Zentro Erregionalak, eta azkenik, esparru berezia izango duten Euskararen inguruko taldeak aldera batera utziz, interes bereziak asetzera zuzendutako taldeak (astronomia, gastronomia,...). Orokorrean hartuta, talde gehienak elkar ezagutu eta harreman minimoa dute, are gehiago azpiesparruen barruan. Musika taldeek harreman estua dute euren artean. Dantza taldeen artean berezitasun bat somatzen da: Kriskitin eta Txoritxu Alaik lokala elkarbanatzeagatik harreman estua dute. Kriskitin eta Tronperri, Kriskitinen sorrera garaietako liskarrak alde batera uzten ari dira pixkanaka, baina oraindik distantziak mantenduz. Zentru Erregionalen arteko elkar harremana nabaria da batez ere bakoitzak antolatzen dituen ekimenetan besteek parte hartzen dutelako.

Euskararen inguruko esparruan, Berbaro, EHE, AEK,... ditugu, hauen arteko harremana oso estua da, ziur asko helburu bateragarriak dituztelako.

Gazteri munduan, Guezan Ba! (Berbaroren gazte taldea), Inurri eta Alkartasuna dauzkagu, euren artean baino, beste esparru batzuekin harreman handiagoa dutenak. Gazteen elkarteak aztertzerakoan aintzat izan behar dugu elkartze formula berriak sortu direla, txoko edo lokalak alokatuz, koadrila eta elkartearen arteko hibridoa sorturik.

Ondoren, Gizarte Ekintzaren inguruko elkarteak (Bateginez, JAED,...) eta herri mugimenduak (AHT, Gaztetxe,...) ditugu. Gizarte Ekintzaren ingurukoek ez dute euren arteko harreman sare egituratu edo zehatzik; herri mugimenduak bestalde sare informala osatzen dute talde ezberdinetan inplikaturik dauden pertsonen bidez, batez ere.

4.2.2.2. Arloen arteko harremanak

Esparruen arteko harremanei dagokienean esan beharra dago lau erreferente daudela: Herria, Kriskitin, Berbaro eta Alpino Tabira. Euren jardueragatik talde guztiek ezagutzen dituztenak eta noizbait elkarlanean ibili eta batak bestearen ekintzetan parte hartutakoak. Kirol esparruan, euren arteko harreman txikia kanpora islatzen da eta harremanik izatekotan herri mugimenduekin dituzte, kontaktu pertsonalengatik oraingoan ere. Herri mugimenduek ez dute gainontzeko taldeekiko harreman-sare egonkorrik, Txosnen Batzordean salbu. Kanporantzako harreman-sare zabalena kultur taldeek dutena da, euskara arloa, auzo elkarreana eta gazteena ikutzen dituen.

4.3. Oinarri soziala

Taldeetan kidetuta edo Administrazio egituraren parte izan gabe, Administrazioarekin eta elkarteekin harremanak dituzten gizabanakoek osatzen dute oinarri soziala.

Lan honetan ezin izan dugu oinarri sozialaren ikerketan asko sakondu, denbora faltagatik batez ere, baina hala ere, oinarri sozialaren berezitasunak eta beste aktoreekin duen erlazioaren inguruko gogoetak aurkeztuko ditugu.

4.3.1. Oinarri sozialaren ezaugarriak

Ikuspegi soziodemografikoa aplikatuz, azpimarratu beharrekoa da Durangok hartutako etorkin kopurua, bai Euskal Herriko beste zonaldeetatik, bai Estatutik kanpo. Hala ere, ohitura herrikoiak mantendu dira eta integrazioa erraza dela uste dute.

Merkataritzaren berpizte eta espezializazioak kaleak dinamizatu ditu, soilik lo egiteko herria izateko arriskutik aldentuz. Lan egoera orokorrari buruzko pertzepzioa lanpostuen egoera prekarioari egiten dio erreferentzia, baina ez da somatzen luxuzko ondasunen (kotxeak...) kontsumoaren beherakadarik.

Oinarri sozialean ez dugu parte-hartzearen inguruan dinamismo handirik nabaritu. Gutxi batzuk, kokoteraino daudenak, Udaletxera zuzentzen dira zuzenean eta soilik kontzientziatuenak taldeetan kide. Gutxien parte hartzen dutenek ere, Udal eta taldeen aktibitateak zentsuratzen dituzte, gauza positiboak ez baitira normalean azpimarratzen. Badakite printzipio ideokogikoak ez direla diskurtsoekin berez gauzatuko, baina horrek ez du sahiesten inplikatzeko gogo falta.

4.3.2. Elkarte-sarearekin harremanetan

Askotan taldeek antolatzen dituzten aktibitateek ez dute merezi duten ikuslego haina. Hau gerta daiteke aktibitateei buruzko komunikazioa ez delako oinarri sozialera heltzen, elkarre sarean gelditzen da, hedatzeko harreman informaletaz baliatzen dira eta.

Oinarri sozialak ez du elkarreetan parte hartzen (belaunaldi berrikuntzaren arazoa), batik bat epe luzerako konpromisoa onartzen ez dutelako. Askok elkarreetan kidezea eta eguneroko beharrak bateraezinak direla uste dute. Arazo hauek ekiditeko Gerraren Aurkako Plataforma moduko elkarre-sareekin saiatu da, zeinen berezitasunak konpromiso eta dedikazio maila baxua eta unean uneko ekintzak diren. Orokorrean, oinarri sozialak konpromiso puntualeko aktibitateak eskatzen ditu.

4.3.3. Administrazioarekin harremanetan

Udalak kultur beharrak berandu asetzen dituela zabaldua dago oinarri sozialean, eurekiko interesa gainbeheran dagoenean jada.

Komunikazio bide gehiago eta hobeak eskatzen dituzte, edota daudenen erabilpen hobeak, giza kapitala eta parte-hartzerako kultura sortzeko ezinbesteko baliabide gisa. Hirigintzaren inguruko erabakietan parte hartu nahi dute batez ere, non kontsultatuak ez direla diote. *“Baina parte-hartzeak ez du lan osoa egin behar dugunik esan nahi”*

esaten dute, alternatibak Administrazioak bilatu behar ditu eta oinarri sozialak bere aburua emango du, entzuna sentitzeko bere gogoia ase nahiaz.

4.4. Ondorioak

- Politikarien arteko giro ona udaletxean. Euren arteko harreman pertsonalak onak dira, honek gai batzuk modu lasaiagoan jorratzea errazten duelarik.
- Teknikari falta. Teknikariak Administrazioa eta herritarren arteko lotura nagusia da. Egun lotura hori administrari eta politikarien bidez garatzen da. Teknikari berriak kontratatzeko aurreikuspenak gabezi hau gutxitu dezake.
- Elkarte-sare anitz eta aberatsa. Elkarteen pluraltasuna da deigarria, badaude elkarte gastronomikoak, dantza taldeak, kirolekoak, gizarte mugimenduekin erlazionatutakoak,...
- Sare sozialeko aktore ezberdinen arteko erlazio mugatua. Komunikazio eskasa. Elkarte-sareko esparru ezberdinen ez dituzte komunikazio bide eraginkorrak, maila informaleko erlazioak nagusitzen dira. Hauek esparru batzuetan anitzak badira ere, esparru kulturean bezalaxe, beste batzuetan, hala nola, kirol esparruan murrizagoak dira. Elkarte kulturek euren arteko harreman gehiago dituzte partehartze gunetan batera egon direlako, kirol taldeek, bestera, errekurtsio mugatuengatiko lehian ibiltzen dira.
- Esparru arteko harremanak maizago ematen dira talde indartsuen eskutik. Indartsu giza eta ekonomi baliabideetan, bizirauteko ardura gaindituta, aktibitatea sendotzeko gai direnak.
- Udal jardueraren inguruko desinformazioa. Oinarri sozialak eta elkarte sareak Udaletxetik datozen informazioak askotan ulergaitzak direla diote eta erabilitako komunikazio bideak ez dutela komunikaziorik bermatzen.
- Entzunak izateko eta erantzukizunik ez izateko beharra. Oinarri sozialak partehartzerako guneak eskatzen ditu, non euren ekarpenak egin ahal izango dituzten, teknikarien oniritziak guztion gustuko erabakiak hartu ahal izateko.

5. DURANGOKO ELKARTE SAREAREN ETA UDALAREN ARTEKO HARREMANEN AZTERKETA

Tokiko sarea aztertzean, elkarte-maila eta erakunde-mailaren artean dauden harreman-mota da funtsezko elementua. Atal honetan, Durango udalerrian dauden harreman horiek aztertuko ditugu.


Horretarako, gai honi lotuta dauden planteamendu teoriko ezberdinak laburki aurkezten hasiko gara.

Tokiko sarearen barruan dauden eragile ezberdinen (Administrazio, elkarte-sare eta oinarri sozialaren) arteko harremanak egituratzean, T. R. Villasantek⁷ hiru eredu teoriko bereizten ditu:

Teknizismoa. Administrazioak “politika” bere kabuz definitzen du eta ez ditu antolatutako herritarrak kontuan hartzen, “ordezkaritza-maila txikia” dutela leporaturik.

Gestionismoa. “Politika”, Administrazioa eta elkartearen goi-kargueen artean negoziatzen da, oinarri soziala baztertuz.

Hiritarkia^{*}. Eragile ezberdinen arteko harreman-eredu ideala litzateke, non, Elina Dabasek⁸ planteatzen duenez, horietariko bat ere ez da berez komunitatearen beharrei erantzun globala emateko gai.



⁷ VILLASANTE, T. R. (1998). *Cuatro redes para mejor vivir*. I eta II Lib. Buenos Aires: Lumen.

* “Ciudadanismo” euskaraz jartzeko Hiritarkia erabili dugu.

⁸ DABAS, E. (1998): *Redes Sociales, familias y escuela*. Buenos Aires: Paidós.

Administrazio eta elkarte-sarearen arteko harremanak aztertzeke beste era bat da Julio Alguacilek⁹ planteaturikoa. Bere ikuspegitik, bi dira erakunde publikoek izan beharko luketen jokaeraren ezaugarriak:

1. Elkarte sareari **baldintzari gabeko laguntza** ematea, bere **bidegarritasun autonomoa** baimenduko duena, Administrazioaren “apendize” politiko bihurtzen duten “morrontzan” oinarrituriko harreman-motaren ordeaz.
2. **Subsidiariedade-prinzipioa**: hiritar-maila zehatzean (baxuago edo eskala murriztagoan) autokudeaturik edo autodeterminatua izan daitekeen oro ezin da maila altuagoan edo eskala zabalagoan kudeatua izan.

Hala ere, egungo egoera oso bestelakoa dela azpimarratzen du:

1. Erakunde publikoek **elkarte-errealitateari buruz duten ezagupena oso zatitua** da, politika integralak ezartzea galerazten duen kudeaketa publikoaren izaera konpartimentatuaren ondorioz. Dagokion erakunde-konpartimentuaren aldetik dirulaguntza jasotzen duten elkarteak soilik ezagutzen dituzte, eta gehienetan, alde estatistiko eta dirulaguntzaren xedea fiskalizatzeko jardueri loturikoak besterik ez dituzte ezagutzen.
2. Erakunde-kulturak **menpekotasun-printzipioa** aplikatzen du, zeinak subsidiariedadearen alderantzizko estrategian gizarte-elkarteak erabiltzera jotzen duen: Erakunde publikoek beren gain har dezaketen orok ezin du gizarte-elkarteen eskumena izan.

Durangoko tokiko sarea, udalerrri gehienetan gertatzen den bezala, ez dagokio zehazki T. R. Villasantek planteaturiko eredu teorikoetariko bati ere, baizik eta, errealitatean, teknizismo eta gestionismo lehenengo bi ereduaren arteko nahasketa da.

⁹ ALGUACIL, J.; CAMACHO, J.; TRABADA, E. (1999): *Metodologías participativas para la acción asociativa en el desarrollo local*. CF+S Boletina, 12 zbk. <http://habitat.aq.upm.es/boletin/n12/ajalg2.html>

Ondoren azalduko dugunez, Durangoko tokiko sarean egon den eta dagoen harreman-mota hobeto islatzen da Julio Alguacilek azaldutako errealitatean: ezagupen zatitua eta menpekotasun-printzipioa.

Erakunde Publikoen jokaera, elkarte-sareari dagokionez	
Egin beharko luketeena	Errealitatea
Baldintzarik gabeko laguntza, bere bidegarritasun autonomoari begira	Ezagupen zatitua, bereziki dirulaguntza jasotzen duten elkarteena
Subsidiaritate-printzipioa	Menpekotasun-printzipioa

Iturria: Lanketa propioa, J. Alguacilek azaldutako ideietan oinarrituz.

5.1. Durango udalerrian izandako esperientzia parte-hartzaileen garapena

Euskal Herrian 80 hamarkadan **Arloko Kontseiluei** emandako bultzadatik abiatuko gara. Durango ez zen salbuespena izan eta, garai horretan, Kontseilu asko izan ziren (kirola, kultura, gazteria,...), baina egun euskarakoak soilik funtzionatzen du. Guztien artean, **Kultur Kontseilua** izan zen denboran zehar eta funtzioei dagokienez gehien garatu zena eta horrexegatik bera aztertuko dugu, ahalik eta gehien sakontzeko asmoz.

Kultur Kontseilua sortzeko ideia Kultur Batzordetik sortu zen, “*herriko kultur talde eta elkarten errealitateak era hurbiletik ezagutzeko*” asmoz eta hasieratik deialdiak oso erantzun positiboa jaso zuen Durangoko kultur talde eta elkarten aldetik.

Jendeak parte-hartzeko gogoia zuen eta ilusioz sartu zen. Kontseilua garatuz eta handituz joan zen, baita ere sektoreka (Dantza, Musika, Zentro Erregionalak,...), zeintzuek beren ordezkariak izendatzen zituzten. Ordezkarri bakoitzak bozka bana zuen eta Kontseiluan ordezkari politikoei eta Udaleko teknikariek ere hartzen zuten parte, azken horiek hitz egiteko bai baino bozkatzeko eskubiderik gabe.

Garapen honetan zehar, Kontseilua aholkularitza-organo baino gehiago bihurtu zen eta orduan sortu zen Kultur Batzordearekiko gatazka. Batzordeak eta Kontseiluak prozesuaren hasieran izandako elkarrekiko konfidantza galdu zuten, bien arteko enfrentamendua nabaria izan arte. Batzuen eta besteen arteko komunikazioa apurtu egin zen eta oso tenka zegoen soka behin betirako eten egin zen, egun erabili gabe dauden Landakoko lokalen inguruan sorturiko auzia zela eta. Une horretan, Kontseiluko lehendakariak dimititu egin zuen eta ordu arte parte hartzen zuten 30 talde inguru ere erretiratu ziren.

Kontseiluaren berezko garapen eta Batzordearekin izandako talkaz gain, Kontseilua bera dirulaguntzak banatzeko tresna huts bilakatzea problematikoa izan zen. Hasieran ez, dirua sobran baitzegoen, baina dirulaguntzak murriztuz joan zirenean, banaketarako irizpideek beraiek *“elkarteen arteko gatazkak sortarazten zituzten”*. Kontseilua dirulaguntzak banatzeko erabiltzea, beste arlotan ere (adibidez, Kirol-Kontseiluan) agertu da era problematiko eta arloko elkarte-sare barneko gatazka-iturri gisa.

Kontseilutik, edo beste era batera esanda, elkarte eta Udalaren arteko elkarlanetik, hasierako urteetan, bi aldeek oso interesgarritzat jo duten inizatibak sortu ziren, eta horrexegaitik, elkarlan horren beharra aitortzen da, baina, egungo egoeran, oraindik nahiko irekita dauden zauriak direla kausa, alde biek elkar-mesfidantza bizia agertzen dute.

Garai honetan ere, dantza taldeen (Tronperri, Txoritxu Alai,...) inizatibaz, **Euskal Astea** urtean behin antolatzen den kultur ekitaldietako astea sortzen da.

5.2. Durangoko Udal eta elkarte-sarearen arteko egungo harremanak

Gaur egun Arloko Kontseilu gehienak desagertu dira, Euskarakoak eta Jai-Batzordeak soilik dira utelarik. Bai Euskal Astea bai San Agustin Zentroa udaletik kudeatzen dira.

Egun elkarte gehien eta Udalaren artean existitzen diren **harremanak bereziki ekonomikoak** dira, bai dirulaguntzak lortzeko eta, baita ere, lokalak izateko.

Dirulaguntzak direla eta, orain dela gutxi arte ez zegoen Ordenantzarik eta existitu diren bitartean Arloko Kontseiluek banatzen zituzten dirulaguntzak. Udalbatzak pasa den apirilean onartu zuen dirulaguntzak emateko Ordenantza berria.

Dirulaguntzen inguruan, elkarte batzuk beldur dira, ez ote zaizkien emango batzuei “afinitate politikoa dela medio”. Beste elkarte batzuen kexa da Ordenantza bera, elkartei kontsultatu gabe egin dela. Udal Gobernuaren aldetik, beldur horiek gaintzeko, hain zuzen, Ordenantza prestatu dela adierazi dute, bere xedea irizpide objetiboak finkatzea izan delarik. Beste aldetik, ez dute uste posiblea zenik Ordenantzaren edukiaz kontsultatzea, Bizkaiko Foru Aldundiak duen dirulaguntzak emateko Ordenantza izan baitute oinarri.

Finantziario bide gisa, Kultur edo Euskara elkarte askok Lankidetzaren Hitzarmenak sinatuta dituzte Udalarekin.

Lokalak banatu direnean, elkarte batzuk ere kexu agertu dira, Udalak banaketa egin baitu inplikatu ezer esan gabe. Horren ondorioz, kasu batzuetan, lokalek ez dituzte betetzen elkarteek behar dituzten baldintzak.

Elkarte eta Udalaren artean dauden harremanak aztertuta, esan beharra dago **elkarrekiko mesfidantza** dela nagusi. Mesfidantza bi aldeetatik: elkarteek Udalarekiko eta Udalak elkarteekiko. Mesfidantza horren arrazoi bi aipa ditzakegu: bata, lehen

aztertu dugunez, izandako esperientziak, bereziki, Kontseiluak, ez direla onak izan. Bestea, elkar ezagupenik eza eta bereziki komunikazio falta nabarmenak direla.

Elkarte askoren artean nabarmentzen den sentrazioa da **egindako lanaren errekonozimendu falta**. Elkarte batzuen ustez, Udalak delegatzen du elkarteengan. Ez du parte-hartze zuzena ekimen kulturalak antolatzean, “delegatu” egiten du elkarteengan. “*Dirua ematen du eta kitto*”. Ez du baloratzen egiten dena eta horren atzean dagoen lana, ezeren truke egindako lana.

Beste batzuen ustez, Udalak **ez ditu bultzatzen elkarteen inizatibak**. Lanean ari den jendea “mimatu” beharko luke Udalak, baina, ez zaio inporta herriaren alde lanean ari diren kolektibo batzuk desagertzea.

Iritziz ezberdinak agertzen dira **elkarrekin antolaturiko ekimenak** direla eta, Udalak izan behar duen jarreraz: elkarte batzuen ustez, Udaleko ordezkariak agertzen dira ekimenak errentabilizatzeko, Udalari “itxura ematea” gustatzen zaio. Baina Udalaren iritziz, elkarteon gonbidapena jaso eta ez bada agertzen, elkarteek kritikatzeko dute.

Elkarrekin eta Udalak **oso ekimen gutxi** egiten dituzte **elkarrekin**. Horien adibidea Sahararen aldeko kanpaina dugu: Herria Auzo Elkarrekin eta Udalak, eta Mankomunitateko gainerako Udalek, batera antolatua.

Elkarte eta Udalaren arteko harremanei dagokienez, elkarteek **elementu positibo bat** aipatu dute: Zinegotzi gehienak berriak direla eta horrek itxaropenak irekitzen dituela. “*badirudi interes gehiago dutela errealitatea, zeintzuk diren elkarteon proiektuak, helburuak, arazoak, ... ezagutzeko*”. Hala ere, beste batzuen iritziz, ez da aldaketarik egongo, alderdi politiko berekoak baitira.

Edozein kasutan, mementu hauetan, Udal eta elkarteon arteko harremanen beste esperientzia-mota ezberdin bat martxan dago, **Txosnen Batzordearena**, hain zuzen. Durangoko jaietan, txosnak orain dela 10 urte baino gehiagotik egon dira, baina orain dela bi urte hasten da interesatzen zaigun Txosnen Batzordea birplanteatzeko prozesua.

Ordu arte, Batzordea osatzen duten 20 bat taldeen arteko harremana ez zen ia ia existitzen. Bakoitza berera joaten zen eta gehien jota ekitaldietarako egun bi banatzen zituzten beraien artean. Udalarekin ere ez zegoen inolako harremanik.

Prozesuaren hasieratik Batzordeak finkatzen duen helburua hauxe da: *“jaiak beste motako kulturak bultzatzen dituen irizpideez hornitzea, hala nola, genero-berdintasuna hobeto zaintzea, gure errealitate kulturala kontuan hartzea edota ekitaldiek izan behar duten izaera erreibindikatioa ez ahaztea”*.

Prozesu hau gizarte-saretik sortua da, honako printzipioan oinarrituz: posible da autonomia osoz eta Udalarekin elkarlanean aritzea, norberaren ideiak edota printzipioak ukatu gabe. Txosnen Batzordeak era autonomoan egiten du lan eta harremanak ditu Jai-Batzordearekin (Udalaren organoa, zeina zinegotzietz eta kolaboratu nahi duten pertsonen osatua dena), jaietako astean zehar izango diren ekitaldiak antolatzeko ahalik eta koordinazio onena lortzeko asmoz.

Txosnen Batzordeak, interlokutore gisa Udalaren errekonozimendua lortzeaz gain, berak antolaturiko ekitaldi gehienak programazio ofizialean sartu ditu eta, baita ere, jai-ekitaldietarako dagoen aurrekontu osoaren atal txiki bat kudeatzen du. Gaur egun, Txosnen Batzordeak hurrengo jaietara begira eta Batzordea bera sendotzeko elkarte gisa eratzeko proposamen osoa negoziatzen ari da Udalarekin.

Elkarte batzuek Txosnen Batzordearen izaera itxia eta baita jai erreibindikatioak bultzatzeak kritikatu dute: *“Beraiek (Txosnen Batzordekideek) jai erreibindikatioak egin nahi dituztela esaten dute, eta geuk, gure helburua dirua lortzea dela erantzuten diegu beti.”*

Dena dela, prozesu honetatik atera ditzakegun ondorioen ikuspuntutik, ondokoak aipatu genitzake erronka eta gako garrantzitsuenen artean:

- **Elkar mesfidantzak** gainditzea, bai Udalak Txosnekiko, bai Txosnena Udalarekiko. Prozesu-mota honen hasieran mesfidantza egotea ohikoa denez,

prozesua errespetatzeko aurretiko konpromisoak hartzeak beldur horiek gainditzeko laguntzen du. Horretaz gain, prozesuaren hasieran betebeharreko baldintza minimoak zehaztu ziren. Horiek baino atzera jotzea ez da onartzen.

- **Interlokutore onak** bilatzea. Zoritxarrez ezin dira espazio politiko zehatz batean kokaturik egon, ez oposizioko alderdi batean Udalean sortuko ziren susmoak direla kausa, ezta udal-gobernukoan beste aldetik sortuko zirenak direla eta.
- Txosnetako jendea prozesuan **inplikatzeko**, beraien planteamenduak aldatuz joateko eta txosnen bokazio sozial eta parte-hartzaileagoa onartu eta barneratu ditzaten.
- Bi aldeentzako esperientzia ona izatea prozesuaren balorerik handiena da, eta zentzu honetan, Durangoko herriarentzako onuragarritzat jotzen duten prozesua hobetzen eta elkarlanean jarraitzeko borondatea dagoela inplikaturiko eragile bien aldetik.

Izaera zehatz eta puntualagoa duten beste zenbait ekimen egon badaude eta beraietatik ere ikasteko elementuak egon daitezke.

Gerraren Aurkako Plataforma pasa den urtean sortu zen herri ekimena da, zenbait talderen ordezkariak eta maila pertsonalean aritzen ziren pertsonak osatua. Amaitu zenean, batzuen asmoa zonalde mailako foro egonkor baten antzeko zerbait sortzea zen, baina oso zaila da jarraipena ematea, eta azkenean, sarea era latentean geratu da, beste antzeko zerbait antolatzea behar bada baliagarria izan dadin.

Hausnarketa Estrategikoa: Udalak, “Bilbao Metròpoli 30” erakundearekin batera sorturiko ekimena da, Durango herriaren diagnostikoa eta Durangalderako gako estrategikoak zehaztea asmoa duena. Bileretan udal-arlo eta gizarte-eremu ezberdinetako pertsona askok hartu zuten parte eta beraien ekarpenez Durangoren potentzialtasunetaz profitatzeko Hausnarketa Estrategikoa diseinatzen ari da.

Durangoko Kafe Antzokia Durangon kulturarako gunea eratzeko asmoa duen inizatiba da. Sentsibiltate euskalduna duten eragile ezberdinetatik sortua izanik,

Durangoko elkarte eta talde ezberdinek parte har dezaten erreferente kultural guztiz irekia izan nahi du. Sortzen ari den proiektua da eta ez daukagu berari buruzko informazio askorik, baina interesgarria iruditzen zaigu, arlo horretako sareak ezartzeko eta sendotzeko baliagarria izan baitaiteke.

5.3. Ikuspegi ezberdinak, Udal eta elkarte-sarearen arteko harremanen inguruan

Elkarteek eta Udalak, bi aldeek arteko harremanak aztertzean ikuspegi bateraturik ez dutela ohartu gara.

Harremanak nolakoak izan behar diren inguruan:

- Elkarteek kritikatzeko dute harremanak ez direla maila berekoen artean (“*de tú a tú*”). Beraien ustez, Udalak ez du onartzen elkarten heldutasuna.
- Udal Gobernuaren iritziz, harremanak ezin direla izan “*de tú a tú*”. Azken finean, elkarteek diru eske jotzen dute Udalera eta Udalak dirua ematen du. Hor ezin da berdintasuneko harremanik egon.

Erabakiak nola eta nork hartu behar dituen da beste eztabaidagai bat:

- Elkarteek urruntasun-sentsazioa adierazten dute: erabakiak Udalak hartzen ditu, auzokideekin kontatu gabe. “*Auzokideak ez dira existitzen, enpresa bati eskatzen diote lan bat egitea trafikoaren inguruan, karga eta deskarga arazoak aztertzeko, Alde Zaharrera sartzeko arazoak eta abar, eta ez diete ezer galdetzen Alde Zaharreko auzokideei. Udalak ez die inoiz galdetu auzokideei: Zer iruditzen zaizue proiektu hau?*”

Gainera, erabakiak hartu ondoren, ez dago informaziorik, zaila da dagokion bulegora ailegatzea,... “*Interneten badago zerbait, UdalBatzen aktak eta abar, baina herritar guztiek ez daukate horretarako aukerarik, ez dago informazio-tabloirik...*”.

Alkatea astero dago Durango Telebistan. Jendeak telefonoz deitzen dio eta Alkateak erantzuten dio, baina hori, informazio baino gehiago propaganda da.

Elkarteak erreta daude, beraien ustez, ez baita baloratzen egiten dituzten proposamenak. Udalak, bere mezu politikoan elkarteei eskertzen diete beraien ekarpena, baina gero paso egiten dute. Beraien ustez, ez dago ere komunikaziorako biderik.

Elkarteek batzuetan erabiliak izateko sentrazioa dute. prestatzen ari garen txostenarekin Udalak zer egingo duen edo zertarako balioko duen ere ez dakite. *“Hausnarketa Estrategikoarekin zer gertatu da? Bilerak egin ziren, horiek aprobetxatu ziren elkarteek ekarpenak egiteko eta gero zer? Udala geratu da horrekin eta ez dago informazio gehiagorik, ez da sozializatu”*.

- Udalak aitortzen du batzuetan ez duela elkarteek esandakoa behar bezala entzuten, baina, bere ustez, gauza bat dela entzutea eta bestea elkarteek esaten duten guztia onartzea. Erabakia hartzea Udalarari dagokiola uste dute: *“Galdera bat egiten badiezu 300 pertsoneri, 300 erantzun ezberdin jaso ditzakezu. Nork erabaki behar du? Udalak”*.

Durango Telebistaren inguruan, Udal Gobernuak ez dago ados Alkatearen propaganda denik. Elkarteak ere agertzen dira Durango Telebistan eta tertulietan kritika gogorak jasotzen Alkateak. Gainera, kontuan hartu behar da Durango Telebista pribatua dela, ez dela Udalekoa.

Hausnarketa Estrategikoa dela eta, Udalak planteatzen du kritikaturiko txostenaren atzerapena beraiek ere jaso dutela. Txostena orain ailegatu da eta bilera egingo dute parte hartu zuten talde guztiekin.

Elkarteek eta Udalak talka egiten dute baita, **dauden baliabideak** (San Agustin, Kontserbatorio, Landako,...) **erabiltzeko** mementuan:

- Kasu batzuetan, Kontserbatorio edo Pinondo Etxean, ordutegi arazoak daude, langileen ordutegiaren barruan erabili behar baitira. Beste batzuetan, San Agustin adibidez, oso baldintza ekonomiko itzelak –asegurua, fidantza,...– jartzen zaizkie elkarteei lekua erabili ahal izateko. Landakoko lokalak amaituta daude, baina ez

zaizkie elkarteei eman. Azken finean, baliabideak egon badaude, baina daudenak elkarteek erabiltzeko oztopo ugari jartzen ditu Udalak.

- Udalaren iritziz, diru-kontua da. Alde batetik, langileen aparteko lan-orduak ordaindu beharko ziren ordutegitik kanpo lokalak erabili ahal izateko. Bestetik, San Agustin defizitarioa da eta erabiltzaile guztiei (elkarreak barne) kobratzea baino beste erremediorik ez dago. Landakon, lokalak ez dira eman, bertara sartzeko eraren inguruan akordiorik ez dagoelako.

5.4. Ondorioak

- Elkarte eta Udalaren artean, **elkarrekiko mesfidantza** da nagusi. Kontuan hartu behar den elementua da eta gainditzeko neurriak hartu behar direla nabarmentzen duena.
- Izandako **zenbait esperientzia** (bereziki, Kultur Kontseilua) gaizki amaitu ziren, bi aldeen arteko **istiluekin**. Nahiz eta bere alde onak eta ekarpen positiboak izan, bi aldeetatik geratu den zapore garratzak ez du era honetan diseinaturiko parte-hartze ereduen alde jotzen.
- Zenbait gairen inguruan (harreman-mota, erabakiak hartzeko era edota gune publikoen erabilera) **eztabaida zabaldu behar** da Udala eta elkarteen artean.
- Elkarteen eta Udalaren arteko **komunikazio falta** nabarmena da eta ez daude hau gainditzeko beharrezkoak diren tresnak.
- Durangoko herrian **parte-hartzerako esperientzia ezberdinak** egon dira eta badaude. Beraiek aztertu behar ditugu, hain zuzen, esperientzia horietatik ikasteko asmoz. Helburua ez da esperientzia bakoitzaren funtzionamendu ona edo txarra goraiatzea edota errudunak bilatzea, baizik eta etorkizunari begira edozein praktika parte-hartzaile hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen zenbait hausnarketa plazaratzea.

6. DURANGOKO HIRITARREN PARTE-HARTZERAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK

Azken atal honetan, ikerketa-lanaren helburu nagusia biltzen da, hau da, gaur egun herritarren parte-hartzerako topatu ditugun oztopo eta aukerak Durangoko udalerriari eskaintzea.

Horretarako, ikerketa honetan zehar gizarte-sarea (elkarte-sarea, oinarri soziala), udal antolaketa eta haien arteko harremanak aztertu ditugu. Atal bakoitzetik atera ditugun ondorio garrantzitsuak modu eskematikoan bildu nahi izan ditugu azken atal honetan.

Baina ezin dugu ahaztu hamar oztopo eta aukerak parte-hartzerako direla, beraz jarraitu baino lehen komeni zaigu “herritarren parte-hartzea” kontzeptua bera ondo definitzea.

Montse Rosak eta Javier Encinak¹⁰ ondo laburtu duten beste egile askok egindako sailkapenari jarraituz, herritarren parte-hartzea hiru era ezberdinetan uler dezakegu.

Ondoko esaldian azaltzen dute **parte-hartzea ulertzeko lehenengo era**: “*parte-hartzea Udalak antolatzen dituen ekimenetara joatea da*”. Parte-hartzea planteatzeko modu eskasena da. Gure ustez, ez da benetako parte-hartzea zeren eta herritarra bezero bat baino ez da, egon eta zerbitzua pasiboki jasotzen duena.




Eredu honetan sortzen den komunikazio soziala norabide bakarrekoa da, goitik beherakoa bakarrik, instituzioetatik herritarrengana. Zerbitzu horiek baloratzeko

¹⁰ Montse Rosa eta Javier Encina: *Democracias participativas desde las prácticas locales*. “Demokrazia Parte-hartzaileako Metodologia eta Prozesuen Dinamizatzailea” Graduondoko Berezko Tituluaren materialak. UPV/EHU. <http://www.parteheartuz.org/prin.htm>

herritarrei ematen zaie aukera bakarra hauteskudetako parte-hartzea da. Bere bozkaren bitartez atxikimendua eman edo zigortu ahal du alderdi kudeatzailea.

Demokrazia ordezkatzaillearen ikuspuntu eskasa da hau, beraz demokrazia parte-hartzailean sakontzeko ez digu ezer berririk adierazten.

Bigarren kontzeptualizazioan, instituzioak eskaintzen dituen zerbitzuen jarraipen eta balorapenak garrantzi gehiago hartzen du. Erabiltzaileen iritzia kontuan hartuz, zerbitzua hobetu daiteke: *“hauteskunde programa irakurri eta bete dezatela exijitu behar da, iradokizun buzoiak erabili, teknikariek aktibitateak baloratzeko prestatzen dituzten galdeketak bete...”*



Kasu honetan, norantza bikoitzeko komunikazioa da eta herritarrek esan dezaketena kudeaketa publikoa hobetzeko garratzitsutzat jotzen da. Eredu honetan kudeaketa publikoaren hobekuntza da helburu nagusia eta horretarako beharrezkoa da herritarren eta instituzioen artean dauden komunikazio bideak zabalik eta jendearentzako (antolatu eta ez antolatuak) eskuragarriak izatea.

Durangoan, gainontzeko udalerrri gehienetan bezala, komunikazio bideek ez dute herritarrek erabil ditzaten besteko erraztasun eta bizkortasunik. Kasu batzuetan ez dira existitzen eta beste askotan nahiz eta formalki agertu, eduki gabekoak dira.

Horrela, herritarren parte-hartzearen ikuspuntutik eredu hau oso mugatua bada ere, berau sortzea edota dauden komunikazio-bideak bizkortzea, toki-administrazioaren erronka garrantzitsuenetariko bat da.

Herritarren parte-hartzea ulertzeko hirugarren eredia Tarso Genroren¹¹ aipamen batetik hartzen dute: *“demokrazia bera demokratizatu behar da, biztanleen gehiengoaren interesei erantzuten dieten mekanismoak sortu behar dira, eta instituzio berriak sortu, erreforma edo hausturaren bitartez, etorkizunerako erabakiak konpartituak izan daitezela”*.

Eredu honetan, parte-hartzeak balore batzuk aldatzen ditu botereak birbanatzen dituelako. Helburua ez da politika publikoaren kudeaketa hobetzea, baizik eta orokorrean demokrazia sakondu eta hobetzea (eta ondorioz gizartearena) lortzea.

Hori gerta dadin, eredu honek boterearen kontzentrazioaren aurka borrokatzeko bokazioa onartzen du eta aldi berean, normalean baztertuak geratzen diren sektoreengana hurbildu nahi du boterea.

Gure ustez, herritarren parte-hartzea ulertzeko era osatu eta aberatsena da eta edozein mekanismo edo prozesu martxan jartzeko oinarria izan beharko litzateke benetan parte-hartzailearen izena merezi izateko. Horrexegatik, halako mekanismo edo prozesuak martxan jartzeko oztopo eta aukerak adierazi baino lehen, oinarri teorikoei buruzko hausnarketa txiki hau egin nahi izan dugu, eredu teorikoa funtsezkoa delako edozein planteamendu zehatzago egiteko.

Jarraian, bi ataletan sailkatuak, Durangon herritarren parte-hartzeari buruzko hausnarketa kolektiboa laguntzeko asmoz, ikerketan zehar parte-hartzerako aurkitu ditugun oztopo eta aukerak eskematikoki aurkezten ditugu.

¹¹ GENRO, T. (1998): *Oposición estratégica*. Cuchará' y Paso Atrá', 7. zbk. Sevilla.

6.1. Oztopoak

1. Izandako **zenbait esperientzia** (bereziki, Kultur Kontseilua) gaizki amaitu ziren, bi aldeen arteko **istiluekin**. Nahiz eta bere alde onak eta ekarpen positiboak izan, bi aldeetatik geratu den zapore garratzak ez du era honetan diseinaturiko parte-hartze ereduen alde jotzen.

Izan ere, esperientzia hauetan parte hartu zuten hainbat pertsonak, Udalarekiko errezero eta mesfidantza jarreran dihardute, baina horrek ez du esan nahi, eta hau balore posibo bat bezala azpimarratu nahi dugu, proposamen edota ekimen berriak ukatzen dituztenik. Beti ere, iraganean izandako akatsak kontuan hartzen baldin badira.

2. Kasu batzuetan, Udalaren eta elkartearen artean dagoen **mesfidantza** aurretik izandako esperientziari lotuta dago, eta beste batzuetan, ezarritako harremanek (gai ekonomikoen garrantzia, elkarrekiko errekonozimendu falta,...) sortuak dira.

Harreman hauetan, gai ekonomikoen garrantzia baztertu arte elkarren arteko mesfidantza gainditzea oso zaila izango da. Elkarte batzuek onartzen duten bezala, elkarteek beti diru gehiago nahi izango dute eta Udalak murriztuko du. Egia da bezero-motako harremanekin oso zaila dela bestelako elkarlan fidagarriagoa lortzea.

3. Elkarte eta talde askotan ez dago **belaunaldi-aldaketarik**. Jende gazteagoak era iraunkorrean parte eta ardurak hartzea kostatu egiten da.

Ez da bakarrik Durangon gertatzen, gure inguruko sare sozialaren erakunde eta mugimenduek desmobilizazio prozesuari aurre egin behar diote. Elkarteek bizi irauteko gainditu behar duten erronka gazte berriekin loturak eratzean datza, beraiek hartu dituzten antolakuntza modu berrituak kontuan hartuz.

Izan ere, Durangon neska-mutil gazteak “lonjetan” biltzeko fenomenoak kontuan hartzekoa da. Ikerketa honetan ez dugu gaian gehiago sakontzeko denborarik izan, baina ematen du antolatzeko eredu klasiko eta berrien artean dagoen tarte handia baieztatzen dela.

4. Elkarte eta taldeak **etiketatzea eta politikoki sailkatzeak**, taldeen arteko ezagutza eta harremanak bultzatu baino, ezagupenik eza eta gizarte-sarearen atomizazioa areagotzen du.

Gure gizartean politikak garrantzi handia dauka eta horrek bere alde onak eta alde txarrak ditu. Hemen ez zaizkigu zergaitiak interesatzen, baina argi dago Durangoko elkarte askorentzako oztopo aipagarria dela. Harremanak naturaltasunez garatu ordez, askotan mesfidantza eta aurreiritzi politikoak dira harremanen abiapuntu.

5. Udalak **ez du parte-hartzea arautu**, eta gainera, Udalaren eta gizarte-sarearen arteko zubi lana egin dezaketena **teknikarien kopurua murrizta** da.

Ikerketa honetan erabili dugun sailkapenaren arabera, maila politiko, tekniko eta herritarra bereiz ditzakegu. Bitarteko maila teknikoaren ezak herritarren eta udalaren komunikazioa eragozten du. Horretaz gain, komunikazioa maila politikoarekin zuzen bideratzen den neurrian, alde batetik, harreman “klientelistak” indartzen dira, eta bestetik, gizarte-sarea mindu daiteke.

6. Elkarteen artean **ez dago parte-hartzeko kulturarik**. Elkarte-sarea zabala eta anitza da, baina askotan, ez dago elkarte bakoitzaren interesak gaingidutiko dituen ikuspegi globalagorik.

Erakundeek beraien ekintzetan geratzen direla edo finantziazioa bilatzeko denbora gehiegi erabiltzen dutela onartzen dute eta, ondorioz, ez dutela errealitatearen irakurketa sakona eta globalagorik egiten. Irakurketa kolektiboa baliogarria izan daiteke erakundeek komunean dauzkaten arazo eta interesak (instituzioekin komunikatzeko eta oinarri sozialera ailegatzeko, besteak beste) aurkitzeko eta irakurketa hori egin ondoren estrategia bateratuak disena ditzakete.

7. **Dirua** Udalaren eta elkarteen arteko harremanen erdigunean kokatzeak, askotan, harremanak desitxuratzen ditu eta ez du harremanak zabalago eta zintzoagoak izatera bideratzen. Are gehiago, Kontseilu batzuetan gertatu den moduan, dirulaguntzen banaketa dela eta, elkarteak elkar joka aritzea ondorioztatzen du.

8. Herrian ez da egon **elkarte eta taldeek jokatzen duten papera** edota Udalarekin dituzten harremanen inguruko eztabaida sakonik. Ez dago elkar errekonozimendurik eta bakoitzak dituen funtzioak zehaztu beharko lirateke.

Rolak eta harremanak definitzea, herritarren partehartzerako beharrezkoa duten eztabaida da, lan hau garatuz martxan jartzea espero duguna. Batzuetan, partehartzeari buruzko hausnarketa egintzat jotzen dugu, baina gero, praktikan, gauzak ez dira hain errazak. Beraz, nola edo hala eztabaida hori egitea ondo legokeela penstazen dugu.

9. Elkarrekin, **espazio publikoak** erabiltzeko edota beraien ekimenak antolatzeko aurkitzen dituzten **zailtasunak**.

Aurreko arazoen ondorioz (elkar mesfidantza, harreman klientelarrak...) talde eta elkarrekin oztopo gehiegi aurkitzen dituzte gune publiko horiek erabiltzeko eta, gure ustez, arazoa ezin da konpondu bakarrik ordutegiak moldatzen. Beste lekuetan ikusi dugun bezala, kausak sakonagoak dira eta egungo mesfidantza-giroa gainditzeak jarrera-aldaketak eskatzen ditu.

10. Elkarrekin eta Udalaren arteko **komunikazio falta** nabarmena da eta ez daude hau gainditzeko beharrezkoak diren tresnak. Gaur egun komunikazioa ez da ia existitzen baina txosten honen zirriborroa aurkeztu genuenean Udalak eta gizarte-sarearen hainbat ordezkari aukera izan zuten hitz egiteko eta kezkek azaltzeko. Badakigu lehenengo pausoa baino ez dela, baina bi aldeek positiboki baloratu zuten arazo hauetaz elkarrekin hitz egiten egon ahal izatea.

6.2. Aukerak

1. Taldeen arteko harreman estuagoak lortzeko, **elkargune** gehiago egotearen beharra somatzen da. Ezagupenik eza eta elkarte bakoitzak egiten duen lan isolatuegia gainditzeko borondatea agerian dago.

Ikerketan zehar hainbat pertsona eta kolektiboengan topatu dugun jarrera positiboa horren froga da. Hala ere, esan dugun bezala, ez dago borondate hori gauzatzeko hausnarketa konpartiturik. Intuizio eta esperientzia batzuk badaude (Gerraren aukako Plataforma...), baina oraindik zehaztu behar da gehiago ibiltzen hasteko.

2. Durangoko gizarte-sarearen **aberastasuna eta aniztasuna**. Kirol edo Kultur arlotik hasita erreibindikatioagoak diren gizarte-mugimenduetan amaitu arte, herriko bizitza sozialean eta bertako ekimen nagusietan presente dagoen gizarte-sarea egon badago, nahiz eta koiuntura orokorra horren aldekoa ez izan.

Indar eta aberastasun hori, beste tokietan esan dugun bezala, zaindu, mimatu eta, ahal den neurrian, sustatu behar da, bai instituzioen partez, bai elkarteen partez.

3. Egondako edota egun martxan dauden **parte-hartzerako esperientzia positiboak**, hala nola, prozesu modukoak edota sarea sortzekoak (jaien antolaketa, esate baterako), puntualagoak direnak (adibidez, kulturaldia) edo, baita ere, Durangoko Kafe Antzokia bezala sortzen ari diren proiektu berriak.

Esperientzia hauek onuragarritzat jotzen dira, Durangoko herriari egindako ekarpenak direla eta.

4. **Udlean, talde politiko guztiak daude ordezkaturik**, eta horrek aniztasuna eta pluraltasuna ondorioztatzen ditu. Gainera, alderdiek beraiek lan egiteko giro ona dagoela aitortzen dute eta baita ere herritarren parte-hartzea bultzatzeko mekanismoak martxan jartzeko borondatea adierazi dute.

Ezin dugu ahaztu alderdi politko bakoitzak dauzkan partaidetzarako barneko bideak eta Durangoko Udalean ia aukera politiko guztiak ordezkaturak daudenez, parte hartzeko beste aukera dela hau.

5. Gaur egun, kultur elkarten ekitaldiak antolatzeko edota elkarguneak sortzeko eta hobetzeko **baliabide material nahikoak** egon badaude, baina arestian aipatu dugunez, ez da nahikoa baliabideak egotea, baizik eta erabiltzaileentzako eskuragarriak eta beraien beharrei egokituak izan behar dituzte.
6. Elkarte-sarearen barruan positibotzat jotzen dugun nahasketa dago, hau da, **elkarte batzuk** Durangoko bizitza sozialean **oso errotuta** daude eta esperientzia handikoak dira (Alpino Tabira, Herria, Berbaro,...), eta beste batzuk, **indarrez sortutako elkarte berriak** dira (AHTren aurkako Asanblada, Alde Zaharra,...). Gizarte-sareak funtzionatu eta dituen tresnez profitatzen den neurrian, batzuen eta besteen elkar-trukaketak herriko indar sozialak sendotuko ditu.
7. Udalak **Tokiko Agenda 21** bezalako prozesu zehatzak martxan jartzeko asmoa du eta bertan prozesu parte-hartzaileak sor daitezke. Ekimen honek askotan ez du benetako partaidetza-gunea ziurtatzen, baina printzipioz bultzatu beharko luke, eta beraz, herritarren parte-hartzeari beste aukera bat zabaltzen dio.
8. **Zinegotzien** artean eta baita ere **zenbait elkartetan** emandako **berriztapenek**, elkar-mesfidantzak, eta batez ere, aurretiko esperientziek sortutako liskar zaharrak gainditu ahal izateko baliagarriak izan daitezke.

Gizarte sarea eta instituzioen arteko harremanetan nahiz eta askotan ez onartu, liskar zaharrak eta haserre pertsonalak proiektu berriak egiteko gogoak baino garrantzitsuak dira eta, gainditzen ez bada, oztopo garrantzitsu bihur daitezke. Horrexeagatik aurpegi, ideia eta proiektu berriak lagungarriak izan daitezke.

9. **Parte-hartzearen aldeko interesa.** Oztopoen artean, zenbait taldetan dagoen parte hartzeko kultura falta aipatu dugun bezala, egia da, eta diagnostiko hau horren adierazlea da, bai Udalean, bai Durangoko gizarte-sarearen barruan, demokrazia parte-hartzailean sakontzeko gogo handia duten pertsona eta taldeak aurkitu ditugula. Teoria mailan ezezik, Durangoko biztanleen parte-hartze politiko handiagoa baimenduko duten prozesuak ezagutu eta aurrera eramateko prest daudenak.

10. Azkenik, **aipaturiko oztopoak** aukera bihur daitezke, beraiek identifikatzea eta barneratzea **gainditzeko** lehenengo urratsa baita.

7. BIBLIOGRAFIA

- [1] ALBERICH, T. (2000): “Perpectivas de la investigación social”, ondoko liburuan: VILLASANTE, T. R.; MONTAÑÉS, M.; MARTÍ, J. (2000). *La investigación social participativa. 1 Lib.Construyendo ciudadanía*. Barcelona: El Viejo Topo.
- [2] ALGUACIL, J.; CAMACHO, J.; TRABADA, E. (1999): *Metodologías participativas para la acción asociativa en el desarrollo local*. CF+S Boletina, 12 zbk. <http://habitat.aq.upm.es/boletin/n12/ajalg2.html>
- [3] IOÉ KOLEKTIBOA: Carlos Pereda, Miguel Angel de Prada eta Walter Actis (2003): *Investigación Acción Participativa: Propuesta para un ejercicio de ciudadanía*. www.nodo50.org/ioe. 2003ko ekaina.
- [4] DABAS, E. (1998): *Redes Sociales, familias y escuela*. Buenos Aires: Paidós.
- [5] FONT, J. (2004). *Participación ciudadana y decisiones públicas: conceptos, experiencias y metodologías*. URBARED, Debate 5. zbk. <http://www.urbared.ungs.edu.ar>
- [6] GENRO, T. (1998): *Oposición estratégica*. Cuchará’ y Paso Atrá’, 7. zbk. Sevilla.
- [7] MARTÍ, J. (2000): “La investigación acción participativa: estructura y fases”, ondoko liburuan: VILLASANTE, T. R.; MONTAÑÉS, M.; MARTÍ, J. (2000). *La investigación social participativa. 1 Lib.Construyendo ciudadanía*. Barcelona: El Viejo Topo.
- [8] MARTÍ, J. (2004): *Diagnósticos locales participativos: estrategias, métodos y técnicas*. “Demokrazia Parte-hartzailerako Metodologia eta Prozesuen Dinamizatzailea” Graduondoko Berezko Tituluaren materialak. UPV/EHU. <http://www.partehartuz.org/prin.htm>
- [9] MARTÍ, J. (2004): *La realidad que se percibe, se mide y se transforma: Métodos y técnicas para la participación social*. “Demokrazia Parte-hartzailerako Metodologia eta Prozesuen Dinamizatzailea” Graduondoko Berezko Tituluaren materialak. UPV/EHU. <http://www.partehartuz.org/prin.htm>
- [10] MARTINEZ, Z.: *Gizarte-Zientzien Metodologiak*. (Argitaratu gabe)
- [11] ROSA, M. y ENCINA, J. (2004): *Democracias participativas desde las praxis locales*. “Demokrazia Parte-hartzailerako Metodologia eta Prozesuen Dinamizatzailea” Graduondoko Berezko Tituluaren materialak. UPV/EHU. <http://www.partehartuz.org/prin.htm>
- [12] ROSA, M. y ENCINA, J. (2004): *Haciendo metodología al andar*. “Demokrazia Parte-hartzailerako Metodologia eta Prozesuen Dinamizatzailea” Graduondoko Berezko Tituluaren materialak. UPV/EHU. <http://www.partehartuz.org/prin.htm>

- [13] VILLASANTE, T. R. (1998). *Cuatro redes para mejor vivir*. I eta II Lib. Buenos Aires: Lumen.
- [14] VILLASANTE, T. R.; MONTAÑÉS, M.; MARTÍ, J. (2000): *La investigación social participativa. 1 Lib. Construyendo ciudadanía*. Barcelona: El Viejo Topo.
- [15] VILLASANTE, T. R.; MONTAÑÉS, M.; MARTÍN, P. (2001): *Prácticas locales de creatividad social. 2 Lib. Construyendo ciudadanía*. Barcelona: El Viejo Topo.